

## MINTEGIA Hirietan Haurren Mugikortasunari buruzko Hezkuntza Proiektuak Eskolako Bidearen IV. Topaketak

Urriak 27, osteguna  
Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea  
Donostia  
Izen emateak: 943 45 35 26 / [cristinaenea@donostia.org](mailto:cristinaenea@donostia.org)  
Leku kopuru mugatua

### Aurkezpena

Erakunde ezberdinetatik (udal gobernuak, ikastetxeak, GKE-ak...) hiria haurrentzat berreskuratzeko helburu nagusiarekin abian jartzen ari diren egitasmoak ugariak dira azken urteotan. Egitasmo horien atzean dagoen helburua da gure hirien sorkuntza kolektiboan –hirigintza, gizarte eta kultura esparruetan-haurrak, neska-mutilak, eragile aktiboak izatea.

Testuinguru honetan, haurrek kaleak era autonomoan erabiltzeak aparteko garrantzia dauka, eta horrexegatik, hainbat egitasmo aurkitzen ditugu, “Eskolako Bidea” izen generikopean, elkarrengandik oso ezberdinak diren eta ikuspegi eta metodologia ezberdinak dituzten hirietan.

Cristina Enea Fundazioak eta Donostiako udalak, CENEAM (Centro Nacional de Educación Ambiental) elkartearen laguntzarekin, hirietan haurren mugikortasun autonomia hobetzeko lanean ari diren pertsonen arteko topaketa eta esperientzia trukaketa antolatu dute, jardunaldi honen bitartez.



### Mintegiaren helburuak

1.- Haurren hiri barruko mugikortasun programetan murgilduta dauden udal ordezkari eta teknikarien, ikastetxeen eta GKE-en arteko topaketa sustatzea, esperientzien, metodologiaren, baliabideen eta jardun onen elkartrukaketa errazteko.

2.- Elkarrekiko ikaskuntza, elkarlana edota indarren koordinazioa bultzatu, esperientzia eta lan-eredu ezberdinen analisisetatik abiatuz, baita eskolako bideen programen garapenean sortzen diren eragozpenen inguruan eztabaidatzea eta identifikatzea.



## Egitaraua

**9:00 Partehartzaileen eta lan-plangintzaren aurkezpenak**

**9:30 - 11:30 Ponentzia markoak**

*¡A la calle! El derecho de los niños al aire libre.* Heike Freire, kazetaria eta hezitzailea.  
*Ciudades que dan juego.* Marta Román, geografoa.  
Lan esparruen eztabaida eta identifikazioa

**11:30 - 13:30 Esperientzien aurkezpena (jardunbide onak)**

Moderatzailea: María Sintés

Esperientziak:

- Zarautz: "Erabil dezagun bizikleta"
- ConBici: "Con bici a la escuela"
- Bartzelona: "Camí escolar, camí amic"
- Madril: "Evaluación del Programa Madrid a Pie. Camino seguro al cole"

**13:30 - 14:30 Jatordua**

**14:30 - 16:30 Tailerra**

"Eskolako Bidea" egitasmoak abian jartzean sortzen diren arazo eta eragozpenen identifikazioa

**16:30 - 17:30 Erakusketara bisita teknikoa: 'Txanogorritxu bakarrik dabil'**



## Antolatzaileak

